


UNIBERTSITATEA COVID GARAIETAN

GORKA MORENO MÁRQUEZ

EHUko Bizkaiko campuseko errektoreordea





Manuel Kantek zioenez, *gizabanako baten adimena jasan dezakeen ziurgabetasun-kopuruaren arabera neurtzen da. Esaldi hori egokia da gure bizitzako une eta egoera bakoitzerako, baina azken hilabeteotan are indar eta garrantzi handiagoa hartu du. Horri dagokionez, uste dut gure gizarteak, oro har, adimena erakutsi duela eta zentzuz erantzun diela Covid-19a gure bizitzetan sartzearen ondoriozko osasun- eta gizarte-krisiak mahai gainean jarri dituen erronka handiei.*

Unibertsitatea ez da gizartetik kanpo dagoen erakundea, eta, beraz, erronka eta arazo handiei erantzun behar izan die, batzuk orokorrak; beste batzuk, ordea, partikularrak eta goi-mailako hezkuntza-erakunde baten berezko ezaugarrietara mugatuak.

Konfinamenduaren ondorioz, gauetik goizera aldatu behar izan zen, aldez aurretik prestatu gabe, ohiko irakaskuntza, metodologiak eta ordura arte erabilitako baliabideak.

Iraultza digital txiki bat izan da. Goi-mailako hezkuntzan beste hezkuntza-maila batzuetan baino hobeto egon gintezkeen arren, eta irakaskuntzarako plataforma birtualak bagenituen ere; konplexua eta konplikatu da mota horretako modalitateak orokorki zabaltea eta unibertsitatean ematen den ia irakaskuntza guztirako zabaltea. Eraitza ona izan zela uste dugu, eta gerora sortutako salbuespen-egoera bati erantzun ahal izan zitziola.

Atzera begiraturaz gero, ondorio batzuk atera ditzakegu epe labur eta ertainera begira. Argi dago irakaskuntza birtuala geratzeko etorri dela, eta etengabeko prestakuntzan edo graduondoko ikasketetan tresna oso erabilgarria izan daitekeela, sustatu eta bultzatu beharko duguna. Baina, paradoxikoa dirudien arren, irakaskuntzan eta prestakuntza birtualean izandako aurrerapenak are gehiago azpimarratu du irakaskuntza presentzialaren beharra. Irakasleek eta ikasleek azpimarratu dute presentzialtasuna oso garrantzitsua

dela irakaskuntzan, eta ikasgelan sortzen den magia ezin da beste inola ere lortu. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, amaitu den ikasturte honetako erronka handienetako bat.

Irakaskuntzaren presentzialtasuna bultzatu dugu testuinguru konplexu batean, non EHU osatzen dugun pertsona guztien osasuna eta segurtasuna bermatu behar genuen. Ezin bestela izan, une zailak bizi izan dira; baina emaitza benetan ona da zailtasunetatik eta akats logikoetatik harago. Irakaskuntza presentzialak, bimodalitatearekin –presentziala eta birtuala– konbinatuta, ikasturtearen hasieran planteatzen genituen helburuak bateratu ahal izan ditu. 2021-2022 ikasturtearen hasierarako, antzeko egoera bat planteatzen dugu: presentzialtasunaren % 75 bermatuko da, eta osasun-egoerak aurrera egin ahala, beste agertoki batzuk baloratuko dira.

Ezin dugu artikulu txiki hau amaitu EHUko ikasleek testuinguru horretan izan duten papera aipatu gabe. Kolektiboa gaztea da batez ere, eta soziabilitate-espazioak eta -eremuak zorrotz murriztu zaizkio. Testuinguru horretan, unibertsitatea bera sozializatorako gune seguru eskas horietako bat izan da. Gazte horien jarrera eredugarria izan da egoera ia guztietan, eta uste dut merezi duela lerro hauetatik eskerrak ematea unibertsitatea eta gizarte osoa osatzen dugun gainerako pertsonetik erakutsi duten konpromisoagatik eta elkartasunagatik.

Covidaren garaiak oraindik ez dira amaitu, eta oraindik nolabaiteko ziurgabetasuna daukagu kudeatzeko eta jasateko. Ibilietako bideak itzalak baino argi gehiago laga ditu gure ikuspuntutik, eta espero dugu datorren ikasturtean denok irrikatzen dugun normaltasun berri horretarantzko trantsizioa izatea.